


‘Hitzordua’ kolektiboak erreflexio prozesua zabalduko du Udal Hauteskundeei begira

■ Kolektibo horren esanetan, PP eta PSE-EEk hauteskundeetan aurkeztekot dituzten arazoez gain, Batasunaren ilegalizazioarekin egoera oraindik gehiago gaiztotu liteke ■ Otsaiaren 1erako bilera konbokatu du.

‘HITZORDUA’ kolektiboak erreflexio prozesua zabalduko du Hernanin, datozenten Udal Hauteskundeetan gerta litekeenaren aurrean, zer egin litekeen ikusteko. *Hitzordua* kolektiboak sensibilidate ezberdineko jendea biltzen du, eta orain artean zenbait bilera eta mahai inguru antolatu dituzte herri-an euskal konfliktoari buruz.

Hitzordua kolektiboaren hitzetan, hilabete batzuk barru Udal Hauteskundeak egingo dira, eta horrek ez luke zertan ezer partikularra izanik egoera normalizatu batean. “Baina, litekeena da orain bizi dugun konfliktoa oraindik ere gehiago gaiztotzea” -dio *Hitzordua* kolektiboak- “ETArenganagatik PP eta PSE-EEk hauteskundeetan aurkeztekot dituzten arazoez gain, orain, Batasunaren ilegalizazioa eta sektore politiko baten kriminalizazioa dauzkagu”.

Hitzordua kolektiboak kezkatuta dago egoera horrek Hernanin ekarri lezazkeen ondorioekin. Kolektibo horrek ikusi du bilera eta teruelietan, jende asko dabilela kontu hori buruan duela. Horregatik, erabaki du pauso bat eman eta herrian erreflexio prozesu bat martxan jartzea gaia aztertzeko. Orain, ahalik eta herriko pertsona eta talde gehienetan iritziak eta pro-



Bota emateko urnak jartzet, aurreko hauteskundeetan.

posamenak bildu nahi ditu kolektibo horrek, “egoera honetan lagunduko duelakoan”

Hitzordua kolektiboak honako lema hau hartu du oinarri eta abiapuntutzat: “proiektu guziak, idea guziak, pertsona guziak”. Talde

horren iritzirako lema horrek ondo bildu eta laburten ditu onarpen haundia duten baloreak: eskubide guziak guzientzat, berdintasuna, askatasuna, errespetoa, justizia, aniztasuna, demokrazia eta abar. Planteamendu horretatik,

erreflexio prozesua martxan jarri nahi dutenek hiru oinarriz ikusten dituzte ezinbesteko: 1) Partido politiko guztiak hauteskundeetara baldintza beratan aurkeztekot aukera izatea; 2) hautetsi guztiak beren karguen jabe egiteko aukera izatea; eta

HITZORDUA KOLEKTIBOA

“Ezinbesteko jotzen dugu partido politiko guztiak hauteskundeetara baldintza beratan aurkeztekot aukera izatea, hautetsi guztiak beren karguen jabe egiteko aukera izatea, eta inongo karguk ez birkartzain beharrik ez izatea.”

3) inongo karguk ez dezala birkartzain beharrik izan.

Otsailaren 1ean Biterin
Erreflexio prozesua martxan jartzeko *Hitzordua* kolektiboak bilera deitu du otsailaren 1erako. Otsailaren 1a laurribata da eta bilera Biterin egingo da, goizeko 10:00etan hasita. □

Bandak kontzertua gaur arkupetan

HERNANIKO Musika Bandak kontzertua emango du gaur Udaletxeko arkupetan, eguerdiko 13:00etan. Manuel Sagarna arituko da zuzendari lanetan eta lau konposizio interpretatuko dituzte: *La puerta grande, El trust de los Tenorios, Boceto del Caucaso eta Estampas vascas*.



Astelehenean Trieb talde hernanirrak emango du kontzertua, Biterin, 19:30etan. □

Aitor Murua Europako ‘Eski Trabesia’ txapelketan

AITOR Murua hernaniarra Europako *Eski Trabesia* txapelketa jokatzen ari da Candanchun, astebu honetan. Muruak 1.600 metroko desnibela duen proba egingo beharko du. □

Ur-jolasak gaur eguerdian kiroldegian

KIROL Patronatuak ur-jolasak antolatu ditu eta umeek *plasti-plasta* batzuk egiteko aukera izango dute gaur kiroldegiko piszinan. Ur-jolasak 10:30etan hasiko dira eta 12:30ak arte izango dira. □



Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoez aldatzen ditugu	
► R-Megane Coupe Sport	1.4
► Peugeot 306 - XS A.A., llantak	SS-BJ
► Seat Ibiza - Diesela	SS-BF
► Opel Corsa	3 ate
► Seat Ibiza - 1.2	SS-AJ
► Renault Express	5 ate
► Lada Niva	SS-AK
► Land Rover - diesela	SS-AM
► Land Rover - kaja, disesela	SS-AS
► Land Rover - kaja, disesela	SS-AP
► Land Rover - kaja, disesela	SS-P
► Land Rover - kaja, disesela	SS-AF



.....eta hainbat kotxe merke.

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak. Erredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. Tel: 943-330899. Fax: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Ezkerrean, herritarak Saharari elkartasuna erakusten. Eskubian Mertxe Etxeberria Alkatea eta Jesus Rebollo zinegotzia Polisarioko ordezkarietkin hizketan, Plaza Berrian jarritako Haiman



Sahararen aldeko elkartasun deiak erantzun oso ona izan zuen atzo

■ Jende asko izan zen Plaza Berrian, eta jan asko bildu ziren ■ Antolatzaleak gustora zeuden herritarrek emandako erantzunarekin.

SAHARA eta Marruekosen arteko konfliktoa dela eta, Saharako herria geroz eta egoera larriagoan dago. Hori dela eta, Udaletxeko Kooperazio-rako Arloaren talde laguntzaleak elkartasun ekitaldia egin zuten atzo Plaza Berrian, Saharari babes eta jakia emateko.

Goizeko 11:00etik bazkalondora arte izan zen ekitaldia eta elkartasun deiak oso

erantzun ona izan zuen. *Haimara* jende asko ibiltzeaz gain, jakintzako prestatutako kaja guztiak bete egin ziren eta kaja gehiago ekarri behar izan zituzten jendeak ekarri-tako atun, olio, pasta eta abarrak jasotzeko.

Sahararrei buruzko informazio eta argazkiak baziren, eta laguntza sinadurak ere bildu ziren. Mertxe Etxeberria Alkatearen elkartasuna ere

jaso zuten sahararrek. Antolatzaleak gustora zeuden jendeak emandako erantzunarekin.

Nazio Batuen Erakundeak urtarrilean zuen erabakitzekoa zer egin pake proposamenaren gaian. NBEK autonomia eskaini die eta Polisarioak ezezkoa emana du. Itxura denez, Nazio Batuek beste bi hilabetez atzeratuko dute Sahararen gainean hartu beharreko erabakia. □

■ PELOTA - 22 URTEZ AZPIKO TXAPELKETA

Garikoitz Erroizenea eta Jagoba Yubero sartuko dira gaur txapelketan

■ Erroizenea-Arrutik Garziandia-Iruritaren kontra jokatuko dute eta Oteiza-Yuberok Mazkiaran-Astizen kontra ■ Partiduak 11:00etan, kirodegiko frontoian.

22 urtez azpiko pelota txapelketako hirugarren jardunaldia jokatuko da gaur eguerdian. Gaurkoan ere bi pelotari hernaniar sartuko dira, aurreko asteburuan bezala. Garikoitz Erroizenea ereñotzuarrak Asier Arruti usurbildarrarekin jokatuko du. Erroizenea aurrelarik onenetako da afizionatuetan. Iaz, Herri artekoan, Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko bigarren gelditu zen, eta Federazio Torneoan ere bigarren postua lortu zuen. Arruti eta biak dira gaur faborito, Garziandia-Iruritak lan erreza jarriko ez badie ere.

Jagoba Yuberok Jabi Oteiza atzelari duela jokatu partidua, Mazkiaran eta Astizen kontra. Aurrelari hernaniarrak

aurrean jokatzen duen aurreneko torneo garrantzitsua du, atzean jokatzeari utzi zionetik. Yuberok ere berekin du iazko Gipuzkoako txapela eta Euskadiko txapeldunordetza.

Aurreko asteburuan, Oier Mendizabal eta Ioritz San Sebastianek jokatu zuten, bakoitzak bere aurreliariarekin, eta biek errez irabazi zuten aurreneko partidua. □



HERNANIKO UDALA

Hernanin, 2003ko urtarrilaren 24an



Aldi baterako Ingurugiro Teknikari bat kontratatu behar du Udalak merezimendu lehiaketa ireki bidez.

Lanaren baldintzak: - Iraupena: 6 hilabete inguru.
- Lanaldia: jardunaldi osoa.

Bete beharreko baldintzak:

- Goi mailako tituluduna.
- 4. edo 3. Hizkuntza Eskakizuna
- Oinarri arautzailetan jasotzen direnak.

Informazio gehiago lortzeko: udaletxeko sarreran edo 943 337021an. Instantziak eta dokumentazioa aurkezteko lekua eta epea: Udaletxeko sarrera errejistroan, 2003ko Urtarrilaren 31a, eguerdiko 13:00ak arte.

ALKATEA

Kubako 'salsa' Hernanin


LATITUDE hauetan gerriak ez du beti beste zenbait lekuetako mugimendurik ibiltzen. Hala ere, Dayamik, Hernanin bizi den dantzari kubatarra ez du dudarik egiten sorlekuak ez duela inongo zerikusirik dantza ondo edo gaizki egiteko. Eta guk, berak nola dantza egiten duen begiratu eta sinistu egin behar gainera!

Hernanin salsa dantzatze-ko zaletasuna bada, eta orain dela bi urte Kixkal taberner ikastaroa jarri zuten martxan. Orduko exitoa ikusita aurten berriz segi egiten dute, baina, orain Dayami dantzariak Gure Etxola lokalean ematen ditu klaseak, astean bitan.

'Salsa' izen komertziala

Dayamik dioenez, *salsa* hitza zenbait dantza mota izendatzeko asmatutako izen komertziala da. Berez, hemen *salsa* bezala ezagutzen dugunak Kuban Casino izena du. *Salsa komertzialak* berriz, *Txa-txa-txa*, *Bachata* eta *Merengue* ere harrapatzenten ditu.

Dantza ikastaroak astelehen eta asteazkenetan dira, 21:00etatik 22:00etara; baina, hemendik aurrera 19:30etan ere izango da bi egun horietan. Eta jendea balego ostegunetan ere bai, 19:30etan. Dantza ikastaroak ez dira hel-



Dayami salsa erakusten.

duentzat bakarrik eta umeek ere badute aukera gorputza erritmo karibeinoetan dantzan jartzeko. Astelehen eta asteazkenetan dute aukera 17:30etan eta 18:30etan. □

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- | | |
|-----------------------|------------|
| ■ Taxiak: | 943 550093 |
| ■ Udaltzaingoa: | 943 333288 |
| ■ DYA: | 943 464622 |
| ■ Autobusak: | 943 556662 |
| ■ Anbulatorioa: | 943 006666 |
| ■ Jokalari anonimoak: | 943 331103 |

■ FARMAZIAK

- | | |
|-----------|--|
| ■ Egunez: | Correa
Perkaitzegi 8
943 551933 |
| ■ Gauzez: | Atxa-Orbea
Lasarte. Hipodromo 6
943 363549 |

IRAGARKI MERKEAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dut. Goizeko 8:00etatik 15:00etara. Deitu: 943 55 58 40 (Arratsaldeko 19:00etan aurrera)

Emakume bat behar degu, etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Deitu: 646 07 93 43 - 943 21 68 98.

Kotxa salgai. Aixan 400, (konduzitzeko ez du karnetik behar). Deitu: 943-550847



- Pelikularik berrienak (VHS eta DVD)

- Marrazki bizidunak, Zinekluba...
- Sandwich hotz eta beroak
- Goxoki eta litxarkeriak

Aukera

bereziak Otsailaren 3 arte

- 10 Euroko kargarengatik 4 dohan
- 15ekoagatik 7 dohan
- 20koagatik 11 doha
- 30koagatik 20 dohan

Ordutegia

Astelehenetik igandera
11:30etatik 21:00etara

Zabaldu berria